

2022/2023 ikasturtea

**GOGOETAZKO IKASKUNTZAZKO ERIZAINNTZAKO  
PROIEKTU BERRITZAILEA: OCEAN i3 PROIEKTUA**  
ITSAS ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

**Egilea: Amaia Franco Mella**



## LABURPENA

**Sarrera:** Ocean i3 hezkuntza berrikuntzako, kultur anitzeko eta diziplinarteko unibertsitate proiektu bat da, lurraldearekin lotua eta ozeanoen jasangarritasunaren aldekoa. Proiektua mugaz gaindiko kostaldean plastikoez ozeanoen kutsadurari erantzuteko asmoz jaio zen arren, aurtengo edizioan bi erronka berri gehitu dira: komunitate zirkularrak sortzea eta itsas energia berriztagarriak bultzatzea. Hauek garrantzia handia ari dira hartzen; izan ere, gaur egun kontsumitzen dugun energia gehiena sortzeko erabiltzen diren erregai fosilak erretzean, osasunerako kaltegarriak diren berotegi-efektuko gasak askatzen dira atmosferara. Gure osasunaren eta ingurumenaren arteko lotura argi utziz, bai eta erizainek harreman hori ulertzeko garrantzia komunitatearen osasuna sustatzeko eta gaixotasunak prebenitzeko.

**Helburuak:** 2023ko urtarriletik apirilera Ocean i3 gogoetazko ikaskuntzazko erizaintzako proiektu berritzailean parte hartzea da lanaren helburu nagusia.

**Jarduerak eta emaitzak:** bi lan-gune ezberdin izan ditugu: hilero ospatutako online edo aurrez aurreko mintegiak eta Euskampus Digital plataforma. Batetik, hilabetero, banaka egin beharreko proiektuko betebeharrak igo ditugu plataforma digitalera zeharkako gaitasunak eskuratzeko. Bestetik, Arku Atlantikoan itsas energia berriztagarriak bultzatzeko helburuarekin, hauek osasunean izan dezaketen ondorioak bilatzea bilaketa bibliografiko bat eginez. Ondoren, uretako kirol-ekitaldi batean informazioa zabaltzea.

**Gogoeta praktika:** hasieran nire buruari ozeanoen jasangarritasunari zuzendutako proiektu baten barruan erizaintzaren ikuspegitik ekarpenik egin ahal izango nuen etengabe galdetzen nion arren, ikusi dut giza osasuna ingurumen-osasunarekin zein lotuta dagoen eta zenbat lan dagoen egiteke bien iraunkortasunaren alde. Beraz, esperientzia oso aberasgarria izan zait. Datorren ikasturteari begira, proiektua hau ikasleen artean hobeto ezagutaraztea gomendatzen dut, erizaintzako diziplinatik hain arrotza dirudien arren, jakingarria delakoan bainago.

**Hitz gakoak:** Ocean i3, itsas energia berriztagarriak, osasun komunitarioa, *One Health*, *Planetary Health*.

**Key words:** *Ocean i3, marine renewable energies, Community Health Nursing, One Health, Planetary Health.*



## **AURKIBIDEA**

1. SARRERA: ZER DA OCEAN I3? .....	1
2. HELBURUAK .....	4
3. JARDUERAK ETA EMAITZAK .....	5
3.1. WORKSHOP .....	6
3.2. PROIEKTUARI EGINIKO EKARPENAK ETA EMAITZAK .....	9
4. NIRE BIZIPENAK PROIEKTUAN .....	10
5. BIBLIOGRAFIA.....	13
ERANSKINAK .....	15
1. Eranskina: 17 Garapen Jasangarrirako Helburuak .....	15
2. Eranskina: komunikazio-planaren posterra .....	16
3. Eranskina: Mural .....	17
4. Eranskina: itsas energia berriztagarriek eta energia fosiletatik abiatuta lortutako energiak giza-osasunean dituzten ondorioak.....	18
5. Eranskina: bilaketa bibliografikoaren, emaitzen eta ondorioen aurkezpena .....	20

## **TAULEN AURKIBIDEA**

1. Taula: lehenengo mintegian egindako jarduerak .....	7
2. Taula: bigarren mintegian egindako jarduerak .....	8
3. Taula: hirugarren mintegian egindako jarduerak .....	9
4. Taula: itsas energia berriztagarriek osasunean dituzten zeharkako ondorioak .....	18
5. Taula: energia fosilek osasunean dituzten ondorioak .....	19

## **IRUDIEN AURKIBIDEA**

1. Irudia: 17 Garapen Jasangarrirako Helburuak .....	15
2. Irudia: itsas energia berriztagarriak bultzatzeko helburuarekin, taldean adostutako komunikazio-planaren posterraren argazkia .....	16
3. Irudia: “Olas del Futuro” lantaldearen Mural plataformaren pantaila-argazkia .....	17

## **SIGLEN ZERRENDA**

**EHU:** Euskal Herriko Unibertsitatea.

**GrAL:** Gradu Amaierako Lana.

**NBE:** Nazio Batuen Erakundea.

**GJH:** Garapen Jasangarrirako Helburuak.

**EGEF:** Eskualde Garapeneko Europako Funtsa.





# 1. SARRERA: ZER DA OCEAN I3?

Ocean i3 hezkuntza berrikuntzako, mugaz gaindiko, kultur anitzeko eta diziplinarteko unibertsitate-proiektu bat da, lurraldearekin lotua eta ozeanoen jasangarritasunaren aldekoa. Proiektu honetan, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) eta Bordeleko Unibertsitateko ikasleek eta irakasleek elkarrekin lan egiten dute erronken inguruan. Ocean i3 izena bi alderdirekin dago lotuta: batetik, eginkizunaren xedearekin, hots, ozeanoarekin; eta, bestetik, EHUren IKD I<sup>3</sup> eredu pedagogikoarekin. Eredu honek ikaskuntza, ikerkuntza eta iraunkortasuna uztartzen ditu (kontzeptu horien hasierako letratik datoz hiru “i”-ak). IKD I<sup>3</sup> 2010. urtean sortutako unibertsitatearen berezko hezkuntza-eredua da eta metodologia berritzaile eta aktiboak sustatzean datza. Horrenbestez, ahalegin berezia ari da egiten nazioarteko erronka komun baten inguruan Gradu Amaierako Lan (GrAL) edo Master Amaierako Lanak egiteari dagokionez. Ocean i3 bezalako proiektuari dagokienez, alegia (1, 2).

Proiektu honek zuzenean heltzen ditu 2015eko irailean Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Batzar Nagusiak aho batez onartutako Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak barne hartzen dituen 17 Garapen Jasangarrirako Helburuetako (GJH) (*ikus 1. Eranskina*) batzuk. Adibidez, 14.a (Itsaspeko bizitza), 6.a (Ur garbia eta saneamendua), 4.a (Kalitatezko hezkuntza) eta 12.a (Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak), eta 13.a (Klimaren aldeko ekintza) (2, 3, 4). NBEren ustez, desberdintasun sozialek, hazkunde ekonomiko global motelak eta ingurumenaren degradazioak (gure egungo errealitatearen ezaugarri direnak) aurrekaririk gabeko erronkak dakarzkiote nazioarteari. Ekoizpen, energia eta kontsumo eredu berberekin jarraitzeko aukera, hortaz, ez da bideragarria. Ondorioz, garapen paradigma nagusia garapen jasangarri, inklusibo eta epe luzerakoa ekarriko duen paradigma bihurtu beharra dago, eta goi-mailako hezkuntzak zeregin garrantzitsua betetzen du NBEak agindutako zeregin horretan. Zehazki, unibertsitateak aldaketarako motore gisa ikusten dira, gizartearen arazoei erantzun behar diena (3).

Proiektu honek eragile akademikoak eta ez akademikoak barne hartzen ditu. Izan ere, hori da Ocean i3-ren berezitasunetako bat: sektore publiko eta pribatuko gizarte-eragileen zein, oro har, gizarte zibileko gizarte-eragileen parte-hartzea. Gizarte-eragileak hurrengoak dira, besteak beste: Rivages Pro Tech, Gipuzkoako Foru Aldundia, Surfriider Foundation, Mater eta Kutxa Fundazioa. Gizarte-eragile horiek zuzenean arduratzen dira Euskal Herriko eta Akitaniako mugaz gaindiko kostaldearen kutsadura plastikoaz eta

ekonomia urdinaz. Horretarako, ezagutza eraikitzen da eta irtenbideak diseinatzen dira unibertsitate-komunitateko kideen (irakasle zein ikasle) eta gizarte-eragileen artean (3, 5). Bestalde, eragile akademikoei dagokienez, diziplinartekotasuna areagotzeko asmoa dago, arazoan eta erronken inguruko ikuspegi integratu eta konplexua izateko. Publizitatea eta Harreman Publikoak, Psikologia, Ekonomia eta Enpresa, Ingurumen Kimika, Erizaintza, Zuzenbidea eta Komunikazioa eta Kazetaritzako ikasleek esku hartzen dute proiektuan, adibidez.

Ocean i3 hezkuntza-berrikuntza proiektua 2018an jaio zen, mugaz gaindiko kostaldean plastikoen ozeanoen kutsadurari erantzuteko asmoz; hain zuzen ere, plastikoen Euskadi-Akitania itsasertzean eragindako kutsadura murrizteko. Azpimarratzekoa da Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) lurralde-garapenerako proiektu interesgarri gisa hautatu zuela Ocean i3 eta diru-finantzaketa bat jaso zuela 2020-2021 urteetarako. Horrez gain, 2021eko irailean, unibertsitateetan GJHei buruzko hezkuntza bizkortzeko jardunbide egokitzat hartua izan zen proiektua (2, 4).

Aurtengo edizioan, honako **ardatz tematiko berriak** gehitzea erabaki da (6):

- Ekonomiaren zirkulartasuna sustatzea Euskadin eta Akitania Berrian kontsumo iraunkorraren bidez: ekoizpen eta kontsumo iraunkorra.
- Ozeanoaren eta itsasertzearen jasangarritasuna eta balorazioa Arku Atlantikoan: itsas energia berriztagarriak.

Beraz, aurtengo Ocean i3 proiektuaren **erronkak** hurrengo hauek dira (6):

- 1) *Inplika gaitzen plastikoen ozeanoetan eragiten duten kutsadura eta horrek osasunean eta ingurumenean duen eragina prebenitzeko eta murrizteko!*
- 2) *Erraztu dezagun kontsumo iraunkorrerako sarbide unibertsala, komunitate zirkularrak sortuz!*
- 3) *Bultza ditzagun etorkizuneko itsas energia berriztagarriak Arku Atlantikoaren kostaldean!*

Ikasleek mugaz gaindiko bost tailerreko ziklo batean parte hartzen dute. Tailer horietan, ekarpenak eta proposamenak egiten dituzte modu sinkronikoan planteatutako erronketarako. Proiektuaren dinamika honela gauzatzen da, pausoz pauso: hasteko, gizarte-eragileek desafioak proposatzen dituzte; ondoren, bi unibertsitateetako ikasleek lantaldeak sortzen dituzte erronka bakoitzaren arabera. Ikasleek beren banako lanen parte

bat diziplina anitzeko proiektu kolektiboan laguntzera bideratu egiten dute. Ikasturteko bigarren seihilekoan zehar (proiektua garatzen den denboraldian, alegia), mugaz gaindiko eta derrigorrezkoak diren bost mintegi horiek burutzen dira, ikasleak elkarrekin aritzeko eta bildutako informazioa kontrastatzeko (2, 7).

Arestian aipatutako GJHek izaki bizidun guztientzako ingurune jasangarri eta osasungarri bat nola garatu erakusten dute, guztiak *One Health* izeneko ikuspegiarekin oso lotuak. *One Health* kontzeptua 2000. urtearen hasieran sortu zen, duela mende bat baino gehiagotik ezagutzen den nozio bati izena emateko: giza osasuna eta animaliena elkarren mendekoak dira, eta elkarrekin bizi diren ekosistemei lotuta daude. Zehazkiago, *One Health* kontzeptua, pertsonentzat, animalientzat eta gure ingurumenarentzat osasun ezin hobea lortzeko tokian bertan, estatuan eta globalki lan egiten duten diziplina anitzen elkarlanerako ahalegin gisa definitzen da. Beraz, *One Health* ez da ikuspegi berria, baina kontzeptu horrek azken urteotan izan duen garrantzia pertsonen, animalien eta gure ingurumenaren arteko elkarrekintzetan gertatu diren aldaketek eragin dute. Alde batetik, giza populazioaren hazkundeak eta, bestetik, nazioarteko bidaien eta merkataritzaren ondorioz pertsonen eta animalien mugimendu erlatiboa esponentzialki handitzeak. Horren ondorioz, gaixotasunak azkar zabal daitezke mundu osotik, eta arazo horren adierazlerik nabarmenena bizi dugun COVID 19 pandemia da (8, 9). Beraz, horrek argiago erakutsi beharko liguke gure osasunaren eta ingurumenaren arteko lotura, eta kontzientziatu beharko gintuzke ingurumena babestea funtsezko estrategia dela etorkizunean beste osasun-krisi garrantzitsu batzuk saihesteko (10).

Azken mende eta hamarkadetan, gizateriaren osasuna eta ongizatea hobetu egin dira maila globalean. Ikusi dugu, besteak beste, murriztu egin dela haurren heriotza-tasa, handitu egin dela bizi-itxaropena eta pobrezia murriztu egin dela. Hala ere, aldi berean, gure energia-kontsumoak nola gora egiten jarraitzen zuen ikusi dugu, basoen eremu handiak moztuz, espezieen desagertze-tasak bizkortuz, ozeanoak azidotuz eta planetaren tenperaturak gora eginez. Esan dezakegu, zalantzarik gabe, azken hamarkadetan sistema naturalen gehiegizko ustiapenean oinarritu ditugula gure osasunaren eta ongizatearen hobekuntzak (11).

Gainera, azken urteotan *Planetary Health* ikuspegia agertu egin da, mundu osoan lortutako osasun, ongizate eta ekitate maila gorena lortzea bezala definitzen dena, betiere gizateriak aurrera egin dezakeen Lurreko sistema naturalen mugak errespetatuz (11). Hau

da, *Planetary Health* eremuak onartzen du gure bizitzak, biziraupen-bitartekoak eta gizarteak gure planetaren osasunaren mende daudela (12).

Energia hori sortzeko erregai fosilak erretzea da klima-aldaketaren erantzulea. Klima-aldaketa horren ondorioak etengabe aztertzen ari dira, eta orain arteko emaitzak kezkarriak dira, gure osasunari eta ongizateari sakonki eragiten baitiete. Munduan osasunerako ingurumen-arriskurik handiena airearen kutsadura da eta urtean 7 milioi heriotza inguru eragiten ditu; gehiena erregai fosilen errekuntzak sortutako energiatik dator (12, 13). Gainera, kliman gertatzen diren aldaketa txikiak ere (bereziki tenperatura igotzeak eta prezipitazioek) eragin nabarmena izan dezakete gaixotasunen transmisioan, baldintza klimatiko aldakorrak funtsezko faktoreak baitira gaixotasun infekzioso askoren hedapen eta inpakturako. Hori dela eta, krisi klimatikoa berehalako mehatxua da osasun publikoarentzat (13, 14).

Erizain komunitarioek giza osasunaren alde egiteko duten betebeharra argi eta garbi lotuta dago giro osasungarriaren alde egiteko duten betebeharrarekin, bai praktikaren, hezkuntzaren zein ikerketaren aldetik. *Planetary Health* perspektibaren arabera, gizabanakoa ingurumenetik bereizita dago, baina biak elkarren mendekoak dira osasun onerako eta ongizaterako. Erizainak, paradigma honetan, zeregin garrantzitsua du bien osasuna zaintzen, bien arteko lotura gisa jardunez eta biak aurrera egiten ari direla ziurtatuz. Izan ere, pertsona baten inguruneak bere osasunari eragiten dio. Esaterako, kutsadura atmosferikoak biriketako gaixotasunak (asma) zein bihotzeko gaixotasunak eragin ditzake (15). Gainera, kontuan izan behar dugu, adin-talde gazteenekin alderatuta, 65 urtetik gorako pertsonak klinikoki kalteberagoak direla klima-aldaketaren osasunerako arriskuekiko. Horrenbestez, krisi klimatikoak erizainek harreman hori hobeto ulertzea eskatzen du, eta, horretarako, *Planetary Health* perspektiba lagungarria izan daiteke oso (13, 16).

## **2. HELBURUAK**

Lan honen helburu nagusia Ocean i3 den gogoetazko ikaskuntzazko erizaintzako proiektu berritzailean parte hartzea da.

Gure lantaldeari esleitutako erronka Arku Atlantikoaren itsasertzean etorkizuneko itsas energia berriztagarriak bultzatzea izan zenez, hurrengo helburua ezarri genuen:

komunikazio-plan bat sortzea itsas energia berriztagarriek osasunean izan dezaketen ondorioak gizarteari helarazteko uretako kirol-ekitaldi batean. Taldekide bakoitzak, bere diziplinaren aldetik, ekarpen bat egin beharra dauka denen artean zehaztutako helburua aurrera eraman ahal izateko. Hala antolatu dugu lana:

- Erizaintza Gradu ikasleen aldetik: *One Health* ikuspuntutik, itsas energia berriztagarriek osasunean izan dezaketen ondorioari buruzko ebidentzian oinarritutako informazioaren bilaketa bibliografikoa egitea. Ondoren, bildutako informazioaren sintesi kualitatiboa egitea.
- Kirol-zerbitzuen Kudeaketa eta Garapena Masterreko ikasleen aldetik: itsas energia berriztagarriek osasunean izan dezaketen eraginak gizarteari zabaltzeko uretako kirol-ekitaldia antolatzea eta kudeatzea (ekitaldirako kokapena bilatzea, babesleekin harremanetan jartzea, eta abar).
- Publizitatea eta Harreman Publikoak Gradu ikaslearen aldetik: behin erizaintzako ikasleok eginiko bilaketa bibliografikoaren emaitzak eskuartean izanik, komunikazio-plana prestatzea informazio hori uretako kirol-ekitaldian jendearen artean zabaltzeko ahal izateko. Baita sare sozial, telebista edo irratia bidez kirol-ekitaldia beraren berri ematea komunikazio-estrategietatik abiatuta.
- Arteko Gradu ikasleen aldetik: energia berriztagarriak sustatzeko helburuarekin sortuko dugun uretako kirol-ekitaldia aditzera emateko euskarriak egitea (fisikoak zein digitalak), eta horretarako tipografia zehatz bat sortzea.

Hortaz, erizaintzako ikasleen ekarpena itsas energia berriztagarriek giza osasunean izan dezaketen eragina (positiboa zein negatiboa) bilatzea da ebidentzia zientifikoan oinarritutako bilaketa bibliografiko bat eginez, betiere *Planetary Health* ikuspegiari helduz. Gero, datuak eta informazioa jaso ostean, sintesi kualitatibo bat egitea.

### **3. JARDUERAK ETA EMAITZAK**

Proiektu honetan aritzeko, bi lan-gune ezberdin izan ditugu: lehena, online edo aurrez aurreko mintegiak eta, bigarrena, Euskampus Digital plataforma digitala. Azken hau EHUko eta Bordeleko Unibertsitateko ikasle zein irakasleen arteko konexiorako gunea izan da, eta mintegietan zein tartean egindako lana taldekide guztiekin partekatzeko aukera eman digu, momentu oro konektatuta egoteko. Alde batetik, hilabetero, banaka egin beharreko proiektuko betebeharrak igo ditugu plataforma digitalera. Bestetik,

etorkizuneko itsas energia berriztagarriak Arku Atlantikoaren kostaldean bultzatzeko asmoarekin zehaztutako helburuari dagokionez, taldeko beste Erizaintza Graduko ikaslearekin batera egindako bilaketa bibliografikoa eta aurkitutako emaitzak partekatzen joan gara plataforma digitalaren bidez. Modu horretan, gainontzeko taldekideek komunikazio-plana garatzeko beharrezkoa duten informazioa edukitzeko.

Proiektuaren 2022/2023 edizioa otsailean hasi zen eta ekainean bukatzen da, eta guztira bost mintegi ospatuko dira parte-hartzaileok elkarlanean aritzeko aukera izateko. Alabaina 4. mailako Erizaintza Graduko ikaslea izanik, GrALa apirilaren amaierarako entregatu behar da. Hortaz, lehenengo hiru mintegietan bakarrik parte hartzeko aukera izan dut, azken biak (maiatzak 12an eta ekainak 9an) epez kanpo baitaude.

### **3. 1. WORKSHOP**

Ocean i3-ren aurreko edizioetan ez bezala, aurtengo lehenengo workshop edo mintegian bertan gizarte-eragileek ikasleoi erronkak proposatu beharrean, urtarrilaren 18an irakasleak eta eragile-sozialak soilik batu ziren. Bileran horretan hiru erronkak zehaztu ziren eta horietako bakoitzari lotutako helburua perfilatu zen; hau da, ikasleoi bidea malgutu ziguten, pauso hori nahiko konplexua delako. Horregatik, lehen mintegian, otsailaren 10ean ospatu zena Hendaian —Borderline Fabrikari, hain zuzen—, hasi bezain laster jakinarazi zizkiguten aurtengo edizioa hiru erronkak eta horren arabera bildu ginen taldeka. Gure taldeari esleitutako erronka “Arku Atlantikoaren itsasertzean etorkizuneko itsas energia berriztagarriak bultzatzea” izan zen eta, urtarrileko bileran esandakoaren arabera, helburua zein izan zezakeen ezagutarazi ziguten. Baina gure taldea hainbat diziplinetako ikasleek osatuta dagoenez, helburua doitzea oso beharrezkoa zelaren ustean geunden eta hurrengo adostu genuen: komunikazio-plan bat sortzea gizarteari hurbiltzeko itsas energia berriztagarriek osasunean izan dezaketean ondorioari buruz, eta informazio guztia uretako kirolen ekitaldi batean helaraztea (*ikus 2. Eranskina*). Izan ere, itsasoko energia berriztagarriak bultzatzeko, energia horiek ezagutaraztea eta horien gaineko kontzientzia sortzea oso beharrezkoa zela uste genuen.

Halaber, taldekide bakoitzak bere diziplinaren ikuspegitik lanari zer ekarpen egin liezaiokeen planteatu genuen. Hasteko, erizaintzako ikasleok, itsas energia berriztagarriek osasunean izan dezaketean ondorioak biltzeko, *One Health* eta *Planetary Health* ikuspegiak aintzat izanik, bilaketa bibliografikoa egitea erabaki dugu, azken

produktua izango den uretako kirol-ekitaldia sortzeko lehen ekarpena eginez. Kirol-zerbitzuen kudeaketa eta garapeneko ikasleek komunikazio-plan hori gauzatuko dugun itsasoko kirol-ekitaldia antolatu eta kudeatuko dute. Gerora, publizitatea eta harreman publikoetako ikaslearen lana itsas energia berriztagarriak giza-osasunean dituzten ondorioei buruzko informazioa nola helarazi gizaritari pentsatzea da, hots, mezuari forma ematea. Amaitzeko, arteko ikasleek uretako kirol-ekitaldia aditzera emateko euskarri fisiko (horma-irudiak edo eskuorriak) zein digitalak (sare sozialen bidezko argitalpenak) egitea, batez ere tipografian lan eginez (*ikus 1. Taula*).

**1. Taula:** lehenengo mintegian egindako jarduerak.

MINTEGIA	DATA	JARDUERAK
1go mintegia	2023/02/10	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasle, irakasle zein gizarite-eragileak gure artean elkar ezagutzea ausazko taldeak osatuz.</li> </ul> <p>Esleitutako erronken arabera bildu ondoren, honako jarduera hauek egiten genituen taldeka:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Taldekide bakoitzak gure burua aurkeztea elkar ezagutzeko.</li> <li>Erronkaren helburua birplanteatu eta berri bat adostu.</li> <li>Poster batean helburua betetzeko planteatutako pausoak adierazi, taldekide bakoitzaren betebeharrak zehaztuz.</li> </ul> <p>Saioaren amaieran, mintegiko emaitzak gainerako taldeekin partekatu.</p>

**Iturria:** propioa.

Horrez gain, bigarren mintegiaren aurretik beste zenbait jarduera bete behar izan nituen Euskampus Digital plataformara igotzeko: motibazio-gutun bat, hiru galdetegi betetzea (eleaniztasunari buruzko bat eta lehenengo mintegiaren inguruko asebetetze-inkesta bat), proiektuko eleaniztasunaren inguruko iruzkin bat eta, azkenik, gogoeta bat.

Hilabetera, martxoaren 10ean, proiektuaren bigarren workshopa ospatu zen GATHER izeneko plataforma birtualaren bidez. Hasteko, adostutako erronkaren helburua zein den ekarri genuen gogora, baita proiektuari zein ekarpen egingo diogun bakoitzak. Mintegian garatutako kontzepturik garrantzitsuena hau izan zen: Arku Atlantikoaren itsasertzean etorkizuneko itsas energia berriztagarriak bultzatzeko asmoarekin sortuko dugun kirol-jardueran transmitituko dugun mezuak gizaritean zer aldaketa eragin ditzake. Halaber, elkarlaneko proiektua bultza dezaketen lurraldeko gizarite-eragileak identifikatu genituen: hala nola tokiko eta eskualdeko erakundeak, eta kirol-ekitaldiaren babesleak. Horrez gain, komunikazio-planaren itua zein den definitu genuen; hau da, itsas energia berriztagarriak sustatzeko helburuarekin, hauek osasunean izan dezaketen ondorioari buruzko

informazioa zer gizarte-talderi transmititu nahi diogun definitu genuen: alde batetik, ekitaldiko parte-hartzaileei eta, beste aldetik, parte-hartzaileen lagunei. Mintegiaren bukaeran, gure lantaldeari izena eman genion eta eslogan bat sortu genuen, betiere etorkizuneko itsas energia berriztagarriak indartzea dela gure lanaren jomuga aintzat izanik, hurrenez hurren: “Olas del Futuro” eta “Itsasoak bultzatuta!”. Mural izeneko arbel digital kolaboratiboarekin lan egin genuen mintegian zehar (*ikus 3. Eranskina*), non gure ideiak eta gogoetak idatzi eta partekatu ahal izan genituen (*ikus 2. Taula*).

**2. Taula:** bigarren mintegian egindako jarduerak.

MINTEGIA	DATA	JARDUERAK
2. mintegia	2023/03/10	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Komunikazio-planaren bitartez, zer lortu nahi dugun zehaztea, jendea itsas energia berriztagarrien inguruan kontzientziaztea, alegia.</li> <li>• Komunikazio-planaren itua zein izango zen adostea.</li> <li>• Parte-hartzaile bakoitzak elkarlanerako zituen banakako jarduerak zehaztea, eta zer baliabide behar izango genituen.</li> <li>• Lantaldeari izena ematea (<i>Olas del Futuro</i>) eta eslogan original bat sortzea (<i>Itsasoak bultzatuta!</i>).</li> </ul> Saioaren bukaeran, gainontzeko taldeei mintegiko emaitzak aurkeztu.

**Iturria:** propioa.

Aurrekoan bezalaxe, hirugarren mintegiaren aurretik beste zenbait jarduera bete behar izan nituen Euskampus Digital plataformari dagokionez: bigarren mintegiaren inguruko asebetetze-inkesta bat, gogoeta bat eta banakako proiektuaren aurkezpen bat.

Proiektuaren hirugarren mintegia, nik parte hartu dudana azkena, apirilaren 21an ospatu zen Hendaian, lehenengo mintegia izan zen leku berean. Hasteko, Isabel Larronderi eta Jon Lekuberi (Rivages Pro Tech ikerketa-zentroaren eta BiMAP enpresaren izenean etorritako eragile-sozialak, hurrenez hurren) Arku Atlantikoaren itsasertzean etorkizuneko itsas energia berriztagarriak sustatzeko, talde-lanaren helburua azaldu eta ordura arte egindako lana aurkeztu genien. Ondoren, ordura arte ikasleok egindako banakako lana aurkezteko garaia izan zen. Lehendabizi, erizaintzako ikasleok egindako bilaketa bibliografikoa eta lortutako emaitzak aurkeztu genituen. Horrela, gure kirol-jarduera sortzeko lehenengo urratsa bete genuen. Bestalde, arteko ikasleek, komunikazio-planaren material grafikoaren diseinuaz arduratzen direnak, haiek sortutako tipografiak erakutsi zizkiguten. Azkenik, publizitatea eta harreman publikoetako ikasleak, kirol-ekitaldiaren dibulgazio-partiaz arduratzen denak, erizaintzako ikasleek aurkeztutako emaitzetatik abiatuta, komunikazio-estrategiak lantzen hasiko zela esan zuen. Behin



ikasle bakoitzak lanaren zer puntutan dagoen azalduta, eragile-sozialen feedbacka eta ekarpenak jaso egin genituen, aurrera eramaten ari garen proiektua benetako beharretara doitzeko.

Hori eta gero, hurrengo ariketari ekin genion: gure uretako kirol-ekitaldiak 2030 Agendak barne hartzen dituen 17 GJHein nola laguntzen duen adieraztea. Ordu erdi baino gehiagoz eztabaidatu ostean, gure proiektuak gehien laguntzen dituen GJHak honako sei hauek direla ondorioztatu genuen: 3.a (Osasuna eta ongizatea), 13.a (Klimaren aldeko ekintza), 7.a (Energia irisgarria eta ez kutsagarria), 4.a (Kalitatezko hezkuntza), 9.a (Industria, berrikuntza eta azpiegitura) eta 14.a (Itsaspeko bizitza) (*ikus 3. Taula*).

### 3. Taula: hirugarren mintegian egindako jarduerak.

MINTEGIA	DATA	JARDUERAK
3. mintegia	2023/04/21	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gizarte-eragileei talde-lanaren helburua azaltzea eta ordura arte egindako lana aurkeztea.</li> <li>Ikasle bakoitzak gainerako taldekideei eta eragile-sozialei azaltzea banakako lanari dagokionez zer puntutan dagoen.</li> <li>Eragile-sozialen (RIVAGES Pro Tech eta BiMAP) feedbacka jasotzea.</li> <li>Gure proiektuak 17 GJHein nola laguntzen duen adieraztea piramide bat eraikiz.</li> </ul> <p>Saioaren amaieran, beste lantaldeei mintegiko emaitzak aurkeztea.</p>

**Iturria:** propioa.

## 3.2. PROIEKTUARI EGINIKO EKARPENAK ETA EMAITZAK

Etorkizuneko itsas energia berriztagarriak Arku Atlantikoaren itsasertzean bultzatzea talde-lanaren ildoan izanik, erizaintzako ikasleek ekarpena itsas energia berriztagarriek giza osasunean izan dezaketen eraginari (positiboa zein negatiboa) buruz informazioa bilatzea izan da. Modu horretan, komunikazio-planaren lehenengo pausoa bete dugu bilaketa bibliografiko bat eginez.

Lehenik eta behin, ikerketa-galderarekin bat zetozen deskriptoreak eta hitz-askeak bilatu genituen, bilaketa egiteko horien konbinazioa egin ahal izateko. Bilaketa egiteko, PubMed, Web of Science, Scopus, ProQuest, GreenFILE eta The Lancet Planetary Health datu-baseak erabili genituen. Bilaketan erabilitako iragazkiak gaztelaniaz edo ingelesez idatzitako artikulua izan ziren eta azken 5 urteetan argitaratutakoak. Hainbat izan ziren aurkitutako artikulua, non pareen arteko irakurketa egin behar izan genuen. Hau da, lantaldeko beste erizaintzako ikaslearen eta bion artean, artikulua irakurri eta gure

ikerketa-galderara gehien hurbiltzen zirenak aukeratu genituen. Behin hori eginda, bakoitzak aukeratutako artikuluetatik ikerketa-galderari erantzun ziezaieken informazioa taula baten bidez adierazi genuen. Ostean, bakoitzak aukeratutako artikulua bestearekin partekatu eta, era berean, taula bat osatu genuen. Berriro ere taulak partekatu eta kontrastatu genituen. Gauzak horrela, bildutako informazio guztia taula handi batean (sintesi kualitatiboa) bateratu genuen artikuluen bakoitzaren argitalpen-urtea, egilea(k) eta ondorioak gaiaren arabera sailkatuz. Baina, taula hain zen handia, non bitan banatzeko beharra ikusi genuen (*ikus 4. Eranskina*). Izan ere, nahiz eta gure bilaketaren ardatz nagusia itsasoko energia berriztagarriak izan, energia fosilek gizakien osasunean duten eraginari buruzko informazio ugari aurkitu genuen. Orduan, ondorioztatu genuen ia ez dagoela itsas energia berriztagarriek giza-osasunean nola eragiten duten deskribatzen duen ikerketarik. Horrenbestez, energia mota horien ikerketa bultzatu behar da *One Health* eta *Planetary Health*-en ikuspuntutik, izakion bizitza planetaren osasunaren mende dagoelako.

Egindako lana taldekideei eta eragile-sozialei hirugarren mintegian aurkezteko, Power Point formatuko aurkezpen bat (*ikus 5. Eranskina*) prestatu genuen bilaketa bibliografikoa nola egin genuen laburki azalduz eta aurretik aipatutako taulak erakutsiz.

#### **4. NIRE BIZIPENAK PROIEKTUAN**

Lehenik eta behin, esan beharra dago, Ocean i3 proiektuan parte hartzea esperientzia oso interesgarri eta aberasgarria izan zaidala. Inolako espektatibarik gabe sartu nintzen proiektu honetan, kurtso hasieran izandako aurkezpenean, proiektu berezien artean, sakondu ez zen proiektu bakarra izan baitzen. Baina proiektuaren izenak berak nire arreta erakarri zuen beti bizi izan naizelako itsasotik hurbil —Bizkaiko kostaldeko herri batean—, eta interes handia erakutsi dut ozeanoen osasunarekiko, zoritxarrez, okerrera egiten ari dena urtez urte. Horregatik, proiektuarekiko jakin-mina sentitu nuen, ozeanoen jasangarritasunari buruz asko ikas nezakeelakoan nengoelako. Gainera, lau urte hauetan berrikuspen bibliografiko asko egiten aritu gara eta GrALerako berritzeko eta beste zerbaitetan lan egiteko gogoia nuen. Hala ere, hasieran etengabe galdetzen nion nire buruari ozeanoen jasangarritasunari zuzendutako proiektu baten barruan zer ekarpen egin ahal izango nuen nire diziplinaren ikuspegitik, hots, erizaintzaren ikuspegitik. Baina Hendaian izandako lehen mintegiaren ostean eta, batez ere, behin bilaketa bibliografikoa

egin ondoren, konturatu nintzen zein lotuta dagoen giza osasuna ingurumen-osasunarekin, eta zenbat lan dagoen egiteke bien iraunkortasunaren alde.

Haatik, atsekabe handia sentitu dut proiektua bukatu baino lehen utzi behar izateagatik. Izan ere, ez dut aukerarik izango komunikazio-plana bere horretan garatzen jarraitzen laguntzeko eta azken produktua ikusteko. Baina poztasun handia sentitu nuen jakin nuenean badagoela aukera uretako kirol-ekitaldia benetan egiteko eta gizarteari hurbiltzeko. Izan ere, ez dago ezer atsegingarriagorik hainbeste ordu eskaini dizkiogun lana nola aurrera ateratzen den ikustea eta jendeari erakustea baino. Hau da, egindako lanaren balioa benetan aitortua izatea.

